MENDITXIKI-LAPURDI
IBANTELI

Etxalar eta Sara herriak lotzen dituen errepidean dago Lizarietako mendatea, gaurko ibilaldiaren abiapuntua. Lapurdi eta Nafarroa Garaia lotzen dituen inguru honetan ezagunak dira oso Etxalarreko usategiak. Duela 600 urte baino gehiago, artzain batek usoei harriak botatzean, hauek jaitsi egiten zirela ohartu ziren eta, apezpiku batek sareak jartzeko esan eta hegaztiak harrapatzen hasi zen. Hauxe da, gaur egun paraje hauetan ehizatzeko erabiltzen duten era berezia. Kultura-ondasun izendapena du. Horrela, udazkenero, ipar edo ekialdeko haizeak jotzean, mendi gain hauetatik milaka usok pasatzen dira.

Paraje hauetan, Lizuniaga eta Lizarieta mendateen artean, Ibanteli mendia goititzen da. Bietatik zuzenean igo daiteke, baina guk Lizarietakoa aukeratuko dugu tontorrera igotzeko. Tontorra Sarako lurretan egon arren, Etxalarreko lurretan ere ibiliko gara mugarriz mugarri. Benten ondoan dagoen aparkalekua ikusiko dugun R 44 mugarri zaharraren ondotik abiatuko gara aurrez aurre ikusiko dugun pista zabaletik. Aldapan gora altuera irabazten hasi eta, bidegurutzera ailegatzean, ezkerretik joko dugu basoaren paraleloan. Bide erosoak lepo bateraino eramango gaitu eta bertan, metro gutxira lehen mugarria ikusiko dugu. Bide nabarmenak tontorrera gerturatuko gaitu R 19 mugarria atzean utzita. Aurrez aurre ikusiko dugun tontorrera iristeko aldapa txiki bat besterik ez dugu igo beharko. Tontorretik dagoen ikuspegia oso zabala da, Larhun eta Arxuria mendiak besteen gainetik nabarmentzen dira. Mendiez gain, Xaretako lurrak bere osotasunean ikusiko ditugu, Sara, Zugarramurdi, Urdazubi eta Ainhoa herriek osatzen duten lurralde ederra bezain liluragarria.

Abiapuntura itzultzeko, igotako bidetik jaisten hasiko gara, baina leporaino jaitsi

Tontorrerako bidean, haritzondoan atsedena hartzen

TESTU ETA ARGAZKIAK

Mikel Arrizabalaga
(Donostia-Eibar, 1957)

Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyrenaica, Euskal Herria eta Nora aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin zerikusia duten makina bat artikulu eta kolaborazio egin ditu. Euskal Herriko mendietan ez ezik, Pirinioak, Alpeak, Atlas eta Himalaiako mendietan ibilia da.

Tontorrean

LUZERA: 3,6 km
DESNIBELA: 250 m

beharrean, ezkerretik, marrazten den xenda bilatuko dugu, Lizarietara iritsi aurretik dauden mugarrien bila. Xenda hau, uda partean garo artean izkutatzen da eta erne ibili beharra dago. Ohiko bidetik zertxobait aparte, R 41 mugarria aurkituko dugu eta beherago, R 42a, Aitor Landdabururen oroitarriaren ondoan. Azken maldak mendatean utziko gaitu. Bertan dauden bi ostatuetan ohikoa da mendizaleak, ehiztariak eta herritarrak ikustea, kanpoan dauden terrazetatik dagoen ikuspegiaz gozatzen.

Tontorretik lepo aldera jaisten